



ANUNTXI ARANA  
ANTROPOLOGOA

## Betiereko sua

**L**ehen bioletekin bat, mendiko suak heldu dira tenoreko, beren desmasiek jarraikiak. Eta ondoren protestak, aldizkari honetara bidali ohi ditudanak barne.

Orain dela bi urtekoa ikaragarria izan zen. Lapurdi, Nafarroa eta Gipuzkoan hedatu ziren suteak, Larrun menditik Enderlatsaraino. Orotara 2.300 bat hektarea erraustuak, eta gutxi egin zuen, ez baitzen jende zauriturik edo hilik. Aziendak bai, bizirik erre ziren, animalia txikiak bezala. Eta borda, oihan, larre eta alhagiak.

CADE-ek eta ingurumenaren defentsan diharduten beste taldeek ohartarazi zuten dozenaka urte beharko direla segurki nahitara piztu su horiek deuseztatu zuten bizia indarberritzeko, eta onartezinak direla behin eta berriz biodibertsitatea horrela kaltetzen duten su kriminalak; kriminalak baitira zinez, eta ez “baimendu gabeak”, batzuek eufemismoz deitzen dituzten moduan. Nork eginak? Ofizialki ez da jakiten.

Eta hola urtero-urtero, temati, betiere.

Aurten Iruñeraino iritsi da ke usaina. Gero, antizikloia finkatu eta haizea gelditu zenean, gehiegizko partikula finen metaketak alerta joarazi zuen. Prefetak autoen abiadura murriztarazi zuen, bai eta kanpoan edozein su debekatu ere... 24 orduz. Handik laster artzainei zuzen-

du zitzaien, otoi, zintzoak izan zitezela, ez zezatela mendia gehiegi erre, edo bederen banan-bana egiteko, ez denok batera.

Bitartean *smog*-a arnastua zuten jandak hainbat lekutan –Maulen piloa– eta zenbaitek ahotsa goratu zuten, ez dutela pozoi hori onartzen tradizioko ohiduratik badator ere, tradizioak oro ez direlako egokiak. Bestalde, denok daki-gula, batez ere artzain xaharrek, suteek orain hartu duten hedadura ez dela antzina sekula ikusi.

Su aski elkarteak, bospasei urte haue-tan borrokatzen baita holako suntsiketa galarazteko, ozenki salatzen ditu arazoan estatuak duen erantzukizuna eta europar finantziario sistema aldrebesa: Nekazaritza Politika Bateratuak belaien azaleraren arabera banatzen ditu dirulaguntzak, hau da, belar gehiago eta mozkin politago. Ondorioz, arra bete baino gorago hazten den guztia hauts bihur!

Su zaleen argudiaketa: suak beharrezkoak direla mendia garbitzeko, eta otsail honetan piztu direla, aroa gisa hartakoa izanki. Kontua da eskola oporrak direla aldi berean, haurrak kanpoan dabilta eta sudur guztiek ez dute kedar usaina gustuko. Beraz, azalduko zaie betidanik ditugula sute horiek, arbasoengandik heldu zaizkigula, gure jatorrikoak direla. Eta abar. ●

## Gizonaren maitasuna



EVA PEREZ-PONS  
ANDRADE

**H**emen aipatuko ez dudan ekitaldi bat aitzakia, lagun min batek Gizonaren maitasuna (*Tradescantia fluminensis*) landarea oparitu zidan, boller bati oparitzeko landarerik aproposena iruditu zitzaiolako. Etxeko egongelako apalategi batean jarri genuen, aste batzuk lehenago pisukideak ekarritako Adanen saihetsa (*Monstera deliciosa*) landare erraldoiaren alboan. Patriarkatuari omenaldia zirudien aldaretxo hark egun gutxi iraun zituen; Gizonaren maitasunari orban zuriak eta zuloak ateratzen hasi zitzaizkion, eta eguzki falta ze-

lakoan, landare gehiago genituen beste txoko batean jarri genuen. Emaitza: hil baino lehen, gainontzeko landare guztiak kutsatu zituen.

Bollera baten eta Gizonaren maitasunaren arteko ezinezko bizikidetzaren bromaz aparte, landareen izenei erreparatuta, anekdota maskulinitate hegemonikoaren eta maitasun erromantikoaren arteko alegoria iruditu zitzaigun. Adanen saihetsaren alboan txiki eta xume sentitzen zenez, auto-suntsiketari ekin zion, bidetik aurkitu zuen guztia berarekin eramanaz. Besteak akabatzen hil zen. ●